

OINARRIAK

1. PARTE HARTZAILEAK

2020/2021 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Deustuko Unibertsitatea (UD) edo Mondragon Unibertsitateko (MU) gradu edota graduondoetan matrikulatutako ikasle oro.

2. GAIA

- Logotipoa Euskadiko XXI. Unibertsitate Kirol Txapelketaren logotipo ofiziala izango da eta ekintza hau promozionatzeko erabiliko da.
- Ekintza honetako partaideak EHU, UD eta MU dira.
- Txapelketa honetan urtero taldekako eta banakako hainbat jokamolde lehiatzen dira ikasleak baina aurtengoan, 3 unibertsitateen artean adostutako eta osasun araudietara egokitutako ekintza izango da.

3. LANAREN EZAUGARRIAK

- Logotipoa kolore bakarrean izan behar da, erraz serigrafiatzeko bezala.
- Idatzirik edukiren bat izatekotan, beronek euskara hutsean izan beharko du.
- Ez da onartuko aurrez beste lehiaketa batean aurkeztutako lanik.
- Irudiak .jpg formatuan eta kalitate handikoak izan beharko dira.
- Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak bere gain hartzen du lanen bat lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea, baldin eta giza eskubideen aurkakoa dela uste baldin badu (arrazakeria, sexismoa, bortizkeria...).
- Parte hartzaileak aitortzen du bidalitako lanaren egilea dela.

4. LAN KOPURUA ETA AURKEZTEA

- Pertsonako hiru lan aurkeztu daitezke gehienez.
- Epea, 2021eko martxoaren 25a, osteguna izango da.
- Lanak Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, posta elektronikoz.
- Aurkeztutako lan guztiak Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuaren webgunean ikusgai izango dira.

5. SARIA

200€ Logotipo irabazlearentzat.

6. EPAIMAHAIA

- Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia.
- Epaimahai honek aurkeztutako lanak kalitate gutxikoak edo lehiaketarako ezegokiak direla iritziz gero, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak bere gain hartuko du irabazlerik ez izateko eskubidea.
- Lehiketaren ebazpena, martxoak 31an (asteazkena) emango da.

7. JABETZA

- Aurkeztutako logotipoaren jabetza egilearena izango da.
- Saritutako logotipoa, XXI Euskadiko Unibertsitate Kirol txapelketaren logotipo ofiziala izango da eta ekintza hau promozionatzeko erabiliko da. Gainontzeko lanak, MUko Kirol Zerbitzuko webgunean izango dira ikusgai.
- Diseinuaren edonolako beste erabilpen bat egiteko, egilearekin adostuko da.